Bertsoak : Herria · L-N

Erref. kodea: LAF-217-189 [4]

Izenburua: Kazetaginza lanetan, *Herria*

aldizkariarako jasotako bertsoak: L-N

L. M.

Donoztiri

Botz Ondo

Airia Igandé arats eztigno batez

Barkha othoi ene ausartzia hasterat noa Bertsuka
Ikhusirikan ene herria hasterat doala indarka
Bertze lekhu guzietan bizela Hor ere izan da bozka
Bai eta airez aire phasatu segur dotzenan Hamèka
Hamèka

I

gizon horiek nor zer diren orai nahi ditut aijhatu
Kundian diren Hobèrenak Herrian dituzte Hautatu
Bainan Bai yaunak badakizuei lan bati ziréztela lothu
Lan éder hori bai gain gainetik behar duzuela moldatu

II

Herri guziek badakite bai! Donoztiri zorn den jollita
Bere zelhai éderrékilan Lorez estalia baita
Herri horrek ere hainitzen gisa ba othe du zerbait? falta
Ederragoa litaké segur bidiak arranjatuta

III

yaun kontseiluko gazte berriak ohore zordut zuei
zésen eta bai lothu zirézte denak khartsuki lanari
Harrajatuko duzuei nasaiki nahi baduzuei ari
Hargatik bai hautatu duzuei yaun. zintzogno bat gidari

III

Lehengo chahavich eman dute bethi bai etsemplu ona
Donoztuiko Hevria erabiliz bethi chuchen chuchena
gure burian atchik dezagun oraino heich errana
Ez da galduko Heien bidiari ongi segitzen deina

V

Bertsu hau beiratua dut zuretzat orai yaun mera
zu hola kargutan ikhusita bihotza dut alegera
chorthe eguna phasatia dut duela zonbeit denbora
Bertzeriaz bai Ukhanen tzinuen bazkari baten mentura

VI

Azken bertsu hau eman gogo dut kontseiluko gizonieri
kuraia eta chantza on bat desiratzen denieri
Nahi baduzuei bide chuchenian bethi atchiki Donoztiri
Bethi yarraik zirezte bai segur gure zeruko yaunari.

Urrun dagon. Herritarra.

L M

LAKO, Joanes

Ostibarre Ohoretan,

1

Hemeretzi ehun hirn hogoi eta zazpia
Otseginez hartzen dutbi bersu berriren cantatzeko astia
Aurten baginuen Contseilu Generalaren bozcatzea
Bihotz onez egin dugu zerbitzari zaharraren hautatzea

2

Hemezorzigarren mendean Ospako etchaldea Cibitz Elisetchia
Garazin gora zaukan Salbatoren bordaldia
Larrazkenean etcherat buruz bidean arthaldia
Heyen harrabotsa zen urrunetik Ostibarren aditia.

3

Familia ohoragarria aspaldi zaitudala ezagutu
Zure osaba chaharrak nindnen sor lekhuan batheatu
Ondoan hil herritzat lekhu bera baitzuen hautatu
Geroan nahi nuke gain hartan nik berriz errecontratu.

4

Luzaz agian osagarri Contseilari Lartigue jauna
Segi zazu ahal oroz aspaldi deramazun lana
Orthozki lagunduz beharretan dena
Jaincoak saristatzen du lurreko zerbitzari ona.

Joanes
Jean Laco.

Landa, Estebe

Hamar
Manamenduak.

1.

Huna pertzu berriak nik orai paratu,
Hamar manamenduak nola gobernatu,
Lehembiziko hortan jainkoa maïtatu,
Lagun protzimua ere igual eztimatu.

2.

Bigarren manamenduan, juramentu guti,
Nahi denaren erterat mihia ez utzi,
Ez da, ba da gauza hortan diferentzia guti,
Zerurat iragan edo ifernurat jautzi.

3.

Mega saindua entzun hirugarrenian,
Obliatuak gare igande egunian,
Obra onak eginez ahaldugunian,
Loriaz gosatzeko eternitatian.

4.

Laugarren manamenduan, gure burrazoak,
Ahalaz sokoritu ez duten gaichoak,
Egin alak eginik ere ez dire pagatuak,
Urikaltzekoak dire eien trabailuak.

5.

Bozt garren manamenduan, nehor ez iltzia,
Zer gauza gogora den oi heriotzia,
Azki dugu jainkoari ereparatzia,
Zeren gure gatik du hartu kurutzia.

6.

Garbitasuna atchik sei garren horretan,
Gogoz, hitzez, obraz eta elhe lizunetan;
Kasu egin dezagun, manamendu hortan,
Tentationiak ardura, dira mundu huntan.

7.

Zaspigarren manamenduan ~~juramentu guti~~ deuzik ez ebatzi
(Nahi denaren erterat mihia ez utzi,)
Nor bere harekin pasa bertzenak an utzi,
Debruak chekatzen du egiteko gaizki,
Katshemaiteko zareak, hedaturik dauzki.

8.

Zortiaren manamenduan, au egin behar dugu
Faltzu teztimoniorik nehori ez kasu,
juramento gachtorik egiten badugu,
Hortaz egun batez kondu eman behar dugu

9.

Bederatzi garrenian ez dago bertzerik,
Ez dezira bertzeren senar emazterik,
Oi bertzen odolian ez hartu parterik,
Arima gaichoak izan ez dezan kalterik.

10.

Izena dut Estebe deitura dut Landa,
Kantu hok eman ditut gogoak eman ta,
Emaitia ez aski bertzerik da falta,
Ez dakienarentzat jakitia hon da.

Estebe Landa.

Landibarre

Landibarre

Airea

Lili bat J-khusi dut baratze batean

1er

primadera Hastean, Chariac cantarri
zortzi bertsu nahitut, nik Hemen ezarri
Lehenik barkhamendu, dautzuet arrarri
Eta partikulazki, pharteic ez duenarri

2eme

pharte Hartu duenak, Hac berac badaki
Lehen kaltea nori, Othe duen Ekharri
guri sortzeko marka, Haurride guzierri
Ez ahal gira Jzain, Horren Jrringarri

3eme

Aspaldian zakiena, nihaurek Erranik
Mbillettan Hobe zuela, Etchean egonik
zerbeit erran baneza, Hen hala ez denik
Arrapostu galdetzendut, nahiduelarik

4eme

Bethi jalgitzen norbeit, salsea egiteko
Bainan Ardurenian, béster janaz-teko
Urgulu eta Harro, guezur cundatzeko
Aurthengo Urthe Huntan, ni naiz muntzatuko

LAPLACE, Julien

'Frantzia'



VILLA ETCHEHOUN, Esquiule.

Laplace, Julien

Carte Postale

Correspondance

Modèle Déposé

Adresse

Frantzia

(Aitta : zu zira, zu)

1

Zu zira, zu, ama bat dohatsia,
Jinkoak berhezia
Hedatzeko mundian justizia;
Ikhousirik zoure majestatia
Zouri buruz-so da jarri mundia
Ô ama Frantzia,
Hainbeste zirelakoz maithagarria !

LÉVY FILS & Cie, Paris

2

Izan zira gaizki akusatuirik,
Latzki ofentsatuirik,
Ezinago borthitzki kolpatuirik,
Gisa oroz garratzki tcherkhatuirik,
Ogenik gabe ôgendant hantuirik
Martirisatuirik !
Halere zu etzira ez lotsatuirik.

J. Laplace

(à suivre)

Lapurtar batek

Bertsu batzu Herrian emaiteko

Galerianoaren aitzean.

1

Herri ttipi pollit bat, badugu lapurdin
Lau ehun presunaka, populuarekin
Pola duen izena, ez neri galdegin
Hori atchikitzko baitut, segereturekin

2

Eskle bat eginazen, juanden ustaileko
Etchetik urrun diren, soldadoendako
Eta partikulaski, Algeriakuendako
Herrian izencan, present egiteko

3

Jendea ona izanda, segur guretako
Ongi bildu omen zen, obra horrendako
Gizon bat bazen emana, guri igortzeko
Bainan ezda hunat jin, deusik guretako

4

Oto belteh bat eharmanta, du promenatzeko
Beti nonbait baitaila, ez da estonatzeko
Gure dirua du ehautzen, ezantza erosteko
Zeren atchiki baitu, dena beretako

5

Bertan hauk emaitean dut, hainitz karkulatu
Zeren ez baitut nahi, nehor deshooratu
Gu ichilik egoitekoz, beharko du erreparatu
Bertzenaz egun batez, aituko baititu

Lapurtar batek emanak

LARREGAIN, Leon (1912-2008)

'Nola behar den lil'

Nola lehar den Hil

Kirea: Sor lekua utziz geroz...

1

Mundu huntarat jin ginen Kreatzaileak deithurik
Lehen hitza, hau, zen jali zainko zaunaren ahotik:
"Ez haiz sekulakotz izanen, mundu zabal ederrean,
Hil ondoan zeruan sartzekotz ari lehar haiz lurrean

2

Gure lehen hurrasuek, lekhatu egin haitute
Endorioz, pairatzeko, hiltzea eman daukute,
Zahar, gazte, aolin guziez zainkoak deitzen bere ganat
Hamhar gaichto prest ez denari agertzeko aintzinerat

3

Atzo gurekin zagona, irriz eta khantuz ari;
Orai, eri, hantchet dago itzatua oheari,
Bi chirio, churi phiztuak, khuntze-fika erdian,
Othoitzean khartsuki ari Sakramenduen guaitian

4

Beretzerak hiruetan, eztiki du chilinteka jo,
Eriak ohetik ihuz, othoi harkha, zato, zato;
Ostia garbi sakratua, zato neure lihotzerat
Zurekilan ager nadien gure zainko-buita ganat

5

Neure etcherat jitia, zauna z nuen merezi
Zure legea ardura, baitut bazterrerat utzi
Hafere barkha dezadazut biziki baitut urriki
Zato beraz, zatozkit Othoi bilnadien bai Sainduki

6

Aphezak orduan dako, eskua afchatuz erran:
« Bekhatuak barkhatuak, izanen zaitzu zeruan
Zure bihotz ogarbian orai errezebi zazu Jesus
Ukhaiteko zainkoa ganik bihizea bakean, urus.

7

- Jesus zaunak nahi zoutu oraino ere Sagundu
Orahi duzu, erraidazut, baietz eman arrapostu ?
Ofio sakratuesikan zaitut amunziatuko
Sofikarioen pairatzeko indar duzu aurkhituko »

8

- Ene Gaita bihizerat johan denari da emaiten,
Azken bafsa emaiterat delarik kasik burbiltzen ;
Ez naiz oraino kenka bartan, ez zait segun idunitzen
Bertz aldi bat artino beraz, dugu gauza hoi ikziren

9

- Arbola bat gehiago ez dagonian tente chutik
Patchetiño bat, emaiten da egon daolen azkarrik ;
Eror eta ez du beharrik, ez da deus egitekorik ;
Halaber hil eta, ez dugu Sakramenduen beharrik

10

- Gaita ona beraz othoi egin dazut indar hori
Kharki, arraposki dirut, othoitzak aditu nahi.
Ene odola maitatua eskuaroz erradazkitzut
Gero laster hilen naizela jadanik ezagutzen dut

11

« Ene aita barkhamendu galdu zakozu Jesusi,
Gogoz hitzez eta obraz, hutsegin ozmanieri ;
Hartakotz daitzu orai apheza ol ogaz thorratuko
Esku ; zango, ezpeinak eta kopeta tu ogarbituko »

12

Jesus zaunak bere ganat nai nahi melakotz
Ene hatz guziz maiteak ez egin nigar hortakotz ;
Kasu egizue ichilik, erromen dituzten ether
Zuen bizi denboran heier egoiteko bethi aiher

13

Neure burrasoak zirelarikan ziran munduti
Orai, nik dituzten gauzak utzi zoindazten esfeutik ;
Nik hala hala, egiten dut, denak dire zuenolako
Bainan hitzeman nezazue ontsa zaizfela biziko

14

Belhaunika zaizte haurrak zuen aitaren oinetan ;
Gaita, Semia, Izpiritu Sainduaren izenian
Ene benedikzionea derautzuetet emaiten
Orai zainko zaunaren ganat alegera naiz agertzen

15

Hosto eiharra arbolan hitzeak itzulikatzen
Azkenean egun batez lur gainerat da erortzen
Hala, hala gure bizia ohartu gabe da zoaiten
Nahi baino goizago gaitu bertze munduerat galdetzen

16

Jainkoaren kreatura, ichtilez berak egina
Hara nun den hatsik gabe iduri ez den izana
Ichtantian laur taulen artian dute elizarat juanen
Eta handik, jin tokian, lurrean dute emanen

17

Haurrek khartsuki othoizten nigarrekin Jesus-Christo
„In nomine Patris et filii Spiritui – Sancto
Jainko guziz botheretsua eta guziz eternela
Gure aita amarckilan zeman izan dadila

18

Ohe churiaren ondôan horra nun den orai khuteha
Haurrak berek aneari erran dio: „ ~~horra~~ horra aita
Eskua emanik gainian, fermu, hitz-eman dezagun
Orai eta bethi girela izanen girichtino hun

19

Azken othoitzak ukhanik, juana dute hil-herrirat
Ahidek segitu dute bere azken egoitzarat
Aphezak benedikatuz du, orduan khantatuz erran:
Requiescat in pace, amen. Egon dadila bakean

20

Sorthu ginen bezen segur, gu ere girade hilen,
Noiz edonola, ez jakin, ez eta ere jakinen
Hiltze saindu bat egitekotz bizi gaitezen sainduki
Orduan hiltzeko ez gira segur izanen beldurti

Léon Larregain

Hiltze urusa

Chaharra bezen aise hiltzen da gaztia
Nehork ez diro itsu jainkoaren begia
Liburuan du eman hiltzeko eguna
Ez daiteke desegin jainkoak errana

2

Hamar urtheko haur bat etzana ohian
Nehork phentsatu gabe sarthu agonian
Chahar bat eritu zen dembora berian.
Hiltzerat ere zohan gaichoa bakian

3

Ohe ehuri batean gaicho haurra dago
Eskuak juntaturik bere amari so
«Ene ama maitea ustez gehiago
Ez zaitut mundu huntan ikhusten ahalko»

4

Aungeru baten pare bihotza arinik
Othoitzian hasi da amattok erranik
Bere esku ttipiak khurutze emanik

zeruko jainkoari begiak alchaturik.

5

Aingeru begiralia ondoan jarririk
Bere esku gochoaz bihotza unkirik
Zerurat iragan da lur hunen gainetik
Jainkoaren oinetan phausatu bakharik

6

Nehor gabe ikhusiz kenka gaichto hartan
izitua hasi da haurra nigarretan
Bainan jesus maitea jin zaio orduan
Hunen bihotz garbia ezarri bakian

7

Zeruko aingeruak zeraizko ethorri
Ukhurturik, eztiki othoitzean hasi
Nigar handirik ere han dute ichuri
Ikhusiz saindu hura joaiten amari

8

Jainkoaren ezena doraki khantatuz
Gaichoaren arima hegalez kukutuz

Hegaldatu dirare zeruari buruz.
Nahiz laster ikhusi haur gaichoa urus.

9

Zeru gainean duzu jainkoa ikhusten
othoi lagun gaitzazu haradino heltzen
Zerutik beha zazu nun giren ibiltzen
Artetan erakutsik aitaren othoizten.

10

Ukho egin diozu zure biziari
Nahiz zerua eman bekhatoreari
Guri behar daukuzu ere erakutsi
Gure pena guzien eskeintzen jesusi

11

Denetaz zinen hemen guziz maithatua
Zeren zinelakoan on, eta, khartsua
Zure Hiltzeak dauku bihotza zauritu
Bainan laster girare segur kontsolatu
Adituz, nola, duzun hiltzea galdatu

S. Larregain

Haspiandarra.

Aphez gei batek aphez gei gazte bati;

Semiaz gaichoarentzat dezagun egin othoitz bat khartsuki.

Larronde, Mayi

"Argi-Garbi"

+

A la Vierge Marie

Pour jeunes gens | Prière du Soir - | Air Oï Miracuilu guziz -

Refrain.

Zuhaitz lerdena Zerurat dohan bezala
Izan detzagun beguiak bethi zu gana
Ezen ez da sekulan aditu zuri hel in duena
Utzi duzula berriz lurrera erortzera -

1er Couplet.

Ama Ona! besarka zazu zure seme handia
Arratsean, etzaterakoan, eta kopetan
Zure itchura gochoa izan dezan bihotzean,
Eta atchik bere ametz hogä urthekoan -

Refrain -

Zure haurra, zure amizinian dako ichilik
Ezen ez dezake enan ichiltasunian beizik
Haren bihotzak, zure bihotz eztiari
Thardesten dion amodiozko solaseri -

Refrain -

Ikusten dituzu gure beharrac oro
Gure bihotzen gosea, gure gorphutzen dorphea,
Gure arimen esturac - Othä Ama bero
Bero, senda chuchen gure izaïte osoa!

Refrain -

Ama Ona! eskuac juntaturik, huna
Ene othoitza, ene arratseko othoitza
Izarrak emeki phisten direlarik zeruan
Zure seme Jesusekin duzun bethico etchean!

Argi - Garbi -

Magi Larronde

Larzabal

'Bankara'

Minimiren cantiak.

Minini fartitu zen ohore haunditan
Oto baten chokoan chare pollit batean
Churita beltchez bezti oidolu erditan
Sorte etchea utzi baitu egun triste hortan

II

Herri gotor batean zuen lehen halta
Chaharzean condatzeko zer egun charmanta
Charetik aterarik denek caresaka
Gauza gochuak iretzis pasatu du besta

III

Untziak fartitzeko baitzuen luzatzen
Pentsoneko lekuaz canbiatu zuten
Yadanik etche hartan gatu anitze baitzen
Kausiak segidan preso zartu zuen

IV

Gatina artetik so begiak luzatuz
zenbait nigar egin du sorte etcheaz oroituz

Aribada goguan bihotza achkartuz
Kuraya atchikidu nigar eta cantuz

V

Agorrilaren hogoi eta ~~bez~~ borz garrena
Télégrama airoz bat karri zakotena
Bihar fartitzen zira hitz gutiz herrana
Mininik agur batez hun hartu duena

VI

Ahantzekizu Minini oraiko changrinak
Sofritzeko eginak gira gutiz gehienak
Zure piaiya hola luzatu duenak
Segur ere bazuzken bere arrozoinak

Larzabal "

Bankara

Monsieur veuillez publier ces chants au prochain numero je vous prie. Salutations distinguées.

Larzabal, Piarres

Larhun mendi aspian, tolar haundietan
bici ziren bi sorgin, etchola batian
Jaun andre bazu ziren, Pello eta Maya
Ifernuco jolatic, harat ethorriac

Bazuten asto beltz bat, Satanec emana
Gisona bezalako, burua zuena
Jende bat bezala zen, heleketan harzen
Etcheco mandatuac, zituen egiten

Es zen es hari sosa, eman behareric
Ithuri bat bezala, heldu zen ahokic
eta asten zelaric, Poker eta pusker
Saski haundi bat urres, betia zen laster
Bi sorgin oyek zuten, dembora ttipian
Mundu gucia bildu, Ascaingo herrian
Ascaindarrec zikusten, jandarmac galdatu
eta hec kasatzeco, zioten manatu

Pello sorginac zuen, gaus'ori aditu
eta satani zion, kontseilu galdatu
Deubru nausiac zion, eman errepusta
« Satan hor izanen duc, es hadila techa

Bayonako jandarmac, jin saiscon etcherat
eta erran zioten, duala kamporat.
Astuac solas ori, adizeharekin
Poker bat egin suen, saski bat urrekin

Ordu berean Maya, bilhoac airian
fandangotan asi zen, sukalde herdian
eta gison harrotzac, ikustean hura
Sosokuric ziraren, erori lurera

Es da goisegi Pello, huna tenorea
Non etsayen hiltzeco, dugun podorea
Arizasu sangotaric, horaco gison'ori
eta ~~saatzac~~ ~~lurpean~~, ehorzi zasu, sakuan sarkuric

Sorginkeria

Larzabal Pierre, collège St François

LUISA, D.

'Toché'

'Ameriketarat noha'

Tocha

Andante

Bi pher-su di-tut khan ta-tu — ren Zu-

er pla-zer e-gi-te-ko ; E-ne sa-ke-la-ko to-

cha-ren Histo-ri oa khondatze-ko , His-to-

ri oa khon dat-ze-ko.

D. Luisa



Amerikatarat noha.



[Elizanburu?]

Zetha zinta gorria

Zer mu - tilla nai-ze - na, Zinta zetha gorri-
an! Ai-se - e-ne o-me - na Heda - tu da herri-
an. Nor e - thor e-ne ga - na, Ni ba-li-o naue-
Refrain
na! Zintoa - re - kin, nik, Ez dut pa - re - rik,
Ur - run ez hur - bil da - nik.

Martin tuku-tuku

lehen berzua

Hitler desiratua mundaan nagusi
Bitoria galduta yuan da iesi
Chointza ta gezurra ditu erakutsi
Eta hoben gabeco zonbat galarazi
present ederrac ditu bazteeretan utzi

2

Abiatu zenean Hitlerren carraska
gure buruzagiac norapait lasterka
soldadoac abandon ez yakin zer pentsa
Hitlerrec egin zuen gure kilan besta
berriz ez dakigula holakoric gerta

3

Bitoriatu giren orai hogoi urte
harec ekarri dauku on bezenbat kalte
entseatu direnec indar egin dute
guc indarraren partez denec badakite
alfer eta gormanta frantziaren bete

4

yaincoac igorri dauku de gaul yenerala
pentsatzeco baitugu urrikaldu dela
norda entreminatu yaun hura bezala
haren confidantziac bilduric ahala
gainetic kendu dauku etsayen hegala

5

Bere lagun onekin biba de gaul yauna
estima garria da egin duen lana
nor nahic emaiten du esperantza ona
kasu mihi faltsuac ezgaitzan engana
frantzia salbatzecotz goazen haren gana

6

Etsaiyac zango petan izandu frantzia
pentsatzen yarri eta zer abulezia
nahiz bazuen ere mila malezia
de gaulec errautsi du haren fantesia
ordainez zor diogu obedientzia

7

Azken bersuarekin huna despegida
egia erraitea aunitz comenida
oraico maneretan segitzen begira
pausu bat aitzinerat gibelerat bida
doluz kargatu mandoac gure bidean dira

Martin tucu tuku

[Maskaradakw bertsoak]

Oihenart, [illegible]
Beriak, 24, 37.
Casenave (ez dan)
1978 – 296, 12. or.

LEHEN PHEREDIKIA.

Jinkuak egün hun deiziela, jaunak eta anderiak.
Hunki jin ziraiela, tchipiak eta handiak.

Hartzen düzie phena, gure ikhustera jitez.
Nik ere hartzen düt libertatia, zier bi hitzez mintzatzez.

Ezagützen ez pa naizie, presentzia beretik,
Deklaratü nahi düt, ni nizü hamabi Dozeparetarik.

Ni niz printze baten semia, eta Ardegnako düke.
Aspaldiko gerletan, zerbütchatzen düt errege.

Huna hüillan dira, ene lagünak ere.
Zugn Frantziako Dozepariak, deitzen beitirade.

Ikusiren düzie orano, Ferragüs ~~ga~~ handia,
Eta hareki Marzeriüs, Zaragozako erregia.

Rolanek nuiz ere beitü, Ferragüs goithüren,
Charlemagnak Ganelon, Zaragozara dü igorriren.

Bere miki gaistotik dianian, Ganelon han ezagütü,
Proposatüren derie naki dianez Charlemagna traditü.

Eta debriaz pusatürik, memento hartan berian,
Saldüren dütü Marzeriüsi, Oliveros eta Rolan.

Bakia tratatü diala, derie sinkets eraziren
Eta Rontzesvailleko landala, jalki eraziren.

Hara direnian, dirade hanitch süsprenitüren
Han Jinkuari othoiez, heriua die hartüren.

Bai eginen die hil gabe, masakre handirik
Bai eta erhoren etsai, injüstoki tradizalik.

Ikusiren düzie Rolan, herio kolpiareki,
Vanjatzen jeneruski, Marzeriüs erregiari.

Gero doloruski hiltzen, bere ezpata eskian,
Jinkuaren ofentsatüz, arragrata bihotzian.

Ganelon gaistuak orano, Charlemagna dü abüsatüren
Amurekatik eta Moruek, Dozepariak erho ditzen.

Entrée en scène des Chorotch
après la danse derrière le Tchereo -
Les deux ensemble

agour agour jente hounak sick aren heben
Guc aldis estakigu solamente noun guiren
Eskual herrin guirela deykie erayten
Nahi gunuke jakin Mabule noun othe den

Naousiac

adio guizon gaztia noula hiz ekharten
Osagaritan bahis plaser diat hartsen
Eya lettea hounec zer dian erayten
Badakiat iskibatzen bena ez iracourtzen

Imithilac

Herri hountaco jaounac dereysu igorten
Espata suc zoroztunic diala desiatzen
Lantto hori ountsa badeozu eguiten
Eskutiala olhos eremestiatinen

Naousia

abilona berhala et'ekhar espata
Eroc lan hori merke eguinen deodala
aperendis bat ere hounic badudala
Ar'eta ene feytona hoy eztuc eguia
aharan has - sonia mintza eta
methila jony

Mithila jour jaounaren gana

Jaouna hora nusu naousiac igoric
Plaser badusu espata guc zorozturic
Badizugu hor gainti hamtch eguinic
Horegatic ezkira oano'aberasturic

Jaounac eman espata

Isctantian banoua naousiaren gana
Isanic ere igantia espeytu importa
Aouherac ordian diradi gouztila
Hayec ere badie noumbait bere houna

Utsul dantsas eta naousiari

Naousia hora nusu jaounaren ganic
Espata bat ederic ekharten ere badit
Gayza bat bidian umidiatu dit
Dama gaste charmant bat espeytu pareric

Naousia khechu

Ichilic egon hadi ahalke gabia
Eta ungua erota salhe salhia
Mayte balimbaduc hic beharondoua
Utsiric emastiac casu eguic hounat

Mithila has erotaren

unguratsen eta gayski ungua jar
belharico eta muntsa

Mithila

Mundu hountaco hountarzunac oro utzi nitio
Holaco dama baten eguin oros gozatzeco
Sagnetan indaric eztit nic haboro
Esdut hounic ukhenen houra goga artino

Naousic sifflet bat eman

bersetaren urhentsui mithila eskapa
eta eguin pheredikia

Pitchouz oyhu eguin

houa jin et acorda gazki ungua eta ahara

Mithila beris bil eta zorotz espata

abiloua berhala espatareki
Bai eta eremeti bertan jourunari
Khountea iskiribus hebetche cheheki
Ountsa iracour isoc atenzioneki
Nota hai eta jour dantsas -

Mithila

Jaouna hora nusu naousiaren ganic
Espata hora deyzut ounsca zorozturic
Khountea iskiribus aldis hebetche dit
Tandas tanda pesac esplicaturic

Mithila

Navusiaren phartez sutut eremestiatsen
Bomir eta osagari bier desiatsen
Soure zerbutchari bethicos baratzen
Umilki saluta eta nusu phartatzen

Mithilac navusiari

Houna nis alaguera beras navusia
Estuzu guiza tscara heri hounen navusia
Hortsce har ezazu ederic phakia
Neskatoric eran ditasut gaour jelkhitsen sela

Bicc

adio jente hounac sier beris artino
sien zerbutchari guira baratuco
Tama gaytoric othoz ez eran gouretaco
Eskoruntahal guitian dagun ihaouticodautsa eta eretia

pour le public

Nescatila gaychouac plaser duzielaric
Nahi deyziet eguin gomendu bat onnestic
Propitzeco ez ezar beguithartin irinic
Hobe dusie eguinic bipastetch irin hartaric

Navusic

Jinconac oy eguin houn mousde jaoun mera
Eguin behar duzu chorotchen byita
Entzunic herri hountan lan hanitch basela
Sortzi eguinentaco junic guira houna

Mithilac

Beytuzu afera franco gourias besteric
Berhala gutuzu despedituric
Herri hountan badugu lan hanitch eguinic
Phakia behar guinisun jaouna soure gainic

Bicc

Eremistiatsen milatan sutugu
Pariserat bihar joun behar disugu
Incas goure beharic aguitzen bazeyzu
Lettera bat harat igor isaguzu

Coumpagna bat handiric estrangeretic
Jente hounac hora guira goyzik jeykiric
Gori hoytan badugu guizon ederic
Betzetan hatic aysa gu guira haytic

Caouter debru hoyac St Godentseco
Bekhau aysina die lanin aritzeco
Gourmant ere badira araza guzia oro
Aysa die bethi aropa gachto

Bouhamiac ere lanic eguin gabe
Araza mila debru hoy bizi diiade
aberatsic har gatic ezta nihouni
aldis sorthiac oro ouhougu diiade

Bedesi pharmazientac jente khostus bisi
Batac counsulta eta bestic eremedi
gu aldis chorotchac lanin zinez ari
Eta haleric ere pauco nekez bizi

Bedisi pharmazienter casu eguizie
Chorotcharen eranac eguiac diiade
Hoyec eremediac bethi purga tie
Sorthi eguinen khakeya segur dukezie

Mendiaga, Jose

MENDIAGA, Jose

'Ni kantuz zakuan sartuko navela
dioen bati'

146

[Mendinga:
Ni kantuz zakvan ...

1er

Ez dakit nor den hobendun
Letra izan dugu egun
Hasparderat bi bertzu igor dezagun
Kontrario worun
Kechu othé dugun
Beldur näiz gure kontra sannortu zaikun
Galdez badakigun
Gue zonbeit yakinsun
Han ez zayola ezagun
ontsa dezakenik lagun
Berak erran omendu sinhets dezagun
Hura bezelakorik ez dela nehun

2em

Irigoin bertsularia
Ziradé edo nahia
Zer gizona bazinu yakitatia
Zuri fantesia
Ez dago ttipia
ustez azpian duzun mundu guzia
urgulu hartzia
Ez da prudentzia
Othoi emazu guardia
Ez zäitila hola abia
Desir baduzu bertzer erakustia
Lehenik hobé duzu ontsa ikhastia

3ème

Mintzo zira guziërri
Zu zirela buruzagi
Nahiz obra handirik ezden ageri
Etzaitela yarri
Zu zuhaur yuyari
Jendiak egin ezdezan sobera irri
Kontseilu onari
Beha zaité bethi
Han behar duzu ikhasi
Eta ahanzterat ez utzi
Guizonak izaïtekotz denen nagusi
Espantu égitia ez dela aski

4ème

Guk dugun yakitatia
Ezda biziki handia
Guhaurek landatzeko guré buruya
Hobé dugu uztia
Bertzeri Karguya
Outsa yuya dezaten guré auzia
Erranez égia
Zirenez hobia
Nahiz ezden balentria
Gaztek éné garraïtzia
Flakatzen hasia dut izpirituya
Baiman oraïno ezdut arras galduya

5 eme

Urgulua utz burutik
Denek badakité engoitik
Ez girela munduan guaur bakharik
Badela bertzerik
Gu beino hoberik
Batéré ez dal dutena guré beldurik
Hek hasis geroztik
Ez egin dudarik
Ez egoitekotz ichilik
ikus dezagun lehenik
Hasi behar girela berri berritik
Orai artian ikhasi duguna gatik

6 eme

Ari zira espantuka
Zu zirela denen aita
Nolakua othé da semien planta
Nola errespéta
ikhastia on baita
Etzazula munduan nehor laidosta
Zer duzun sujéta
Gaudé pheasakéta
Bethi bertzez elheketa
Egin tuzten lanen kontra
Etzazula zuré obra sobera banta
on guti gelditzen da charra kenducta

7 em

Ez zireya enoatzen
Bethi einé atakatzen
Zerbeit erran dezadan nauzu bortchatzen
Ez naiz abiatzen
Nehoren mendratzen
Ez bainaiz ikhasia gaizki müntzatzen
Hola bazira artzen
Zu einé cherkhatzen
Orduan duzu yakinen
Enetzat nagusi ziren
Idi zaharra eiré baita khechatzen
Akulnaz sobera bada chiztatzen

8 em

Horren bertzé desafio
[illegible]
Horri ezdela untsa erakus nio
Hoy dela médio
Hainiz kontrario
Gizonak mundu huntan harrapa dio
Bat berzia baino
Nahiz yuan gorago
Ez burua hola bero
Untsa dolu ez zaitzen mintzatzia gero ezda nehun khario
Guti gostatzenda eta ainitz balio

9eme

Ené Kantuz Jarraitzia
Eta zakurat biltzia
Zuk diozu ezdela laubat handia
aïsé da érraitia
Ezinez éguitia
ontsa Konpreni zazu arrapostua
Zuk duzun guzia
Hauche da Jaztia
Burman banitatia
Etipia Jakitia
Ez bada handiago zuré zakuya.
Ez nauzu aisé 1 Khusiko barnian sartuya

MONTEVIDEOKO BERRIAK

Airea : Nork nahi zer nahi erranikan ere

I

Eskual herrietarik izan dut galdia
Montevideon nola bizi den jendia
Erran nahi dauzuet bihotzez egia
Ene herritar maiteak,egizue guardia
Hemengo bizia,horgua iduria
Ez da ainhitz hobia
Hor ontsa denik hunat ez bedi abia

2

Guzietan badira hor bezela penak
Nun nahi soffitzen du pobria denak
Hemen badira ainhitz hortik hunat jinak
Ilusionez betherik eitera fortunak
Ez dira lehenak;tronpatu tuenak
Urruneko famak
Ezin biziz orotan badira lanak

3

Hunat onduan dabiltza karriketan kurri
Lanik badakitenez galdez elgarri
Ez dira menturatzen jende aberatsari
Heiek ez dute egiten kasurik nehori
Esker tzarra ororí,merkenikan hori
Bihotz altchagarri
Sofritu behar dute pobrek zer nahi

4

Bizi behar duenak hemen jornalian
Ez da izanen bethi abondantzian
Suertez sartzen baditu hiru egun lanian
Alfer bertze hiruak emanez etchian
Salda tcharra eltzian,duke igandian
Mahainian jartzian
Hobeki bizi dira Eskual-Herrian

5

Orai nahi duenak egia sinhetsi
Hemengo berriak kundatzen tut klarki
Behar duenak hemen esku lanaz bizi
Pasatu beharko du zonbait neke izerdi
Hala ere bethi,ikusia gaizki
Pobre izaitia aski
Jainkoa holakoaz urrikal bedi

Mendiague

6

Denbora hobiagoetan zonbait hunat jinik
Orai hemen gabiltza sakela arinik
Ez ginuen pentsatzen ordúan segurik
Ondotik jinen zela holako urtherik
Hortaz fidaturik,gaude tronpaturik
Ez dugu lanjerrik
Hemendik jalitzeko aberasturik

7

Hok dira amerikano zaharren berriak
Pasatu izan tugu urthe hobiak
Berantegi argitu ditugu begiak
Ez izanez oraiko esperientziak
Orai zahartiak,laneko nagiak
Indarrak galdiak
Planta tcharrian gaude eiteko indiak

8

Arribatu ginenian gu Amerikara
Zerbaitén egiteko bazen denbora
Zahartuko ginenez guti orhoitu gira
Mundutik partitzeko jin zauku denbora
Notaria etchera,jiten bada aldera
Testament eitera
Garbi geldituko da haren paperra

9

Huna zer berri dugun Amerika aldian
Nahasiak gabiltza oro aspaldian
Bat bertziarentzat bethi inbidian
Elgar ezin sofrituz daude errabian
Bataila gorrian,elgarren artian
Ez dauzke bakian
Denak pagatzen ditu pobriak munduian

IO

Hor dudatzen duenak hauien sinhestia
Aski du ikustera berak jitia
Hemen ere eiten dute zenbaitek suertia
Ez da guziendako destino trichtia
Ez da lan handia, berak probatzia
Jin eta ikustia
Ez gure gatik utz fortuna eitia

Jose Mendiague

MendItik noizpait

Eskuara maitearen alde ...

Bi pertsuren emaiteko helduzaut embeia
Ez zait segur urrundik ethorri ideia
Bainan kusiz zombaitek daukaten nahia
Erdaraz mintzatzeko bethi aphez gaia

Latinan eta Grec-an ari gvielarik,
Hoiek ezin berechiz korropilotarik
Aihen basa makurrez baitaude lothurik,
Nork iraun, eutzun gabe eskuara garbirik?

Bildotsak nola baitu amaren esnea
Haunditzen Laguntzeko parerik gabea,
Berdin guretzat ere Eskuara maitea,
Zu baino hoberikan munduan badea?

Pentzetikan bufadaka doan usain ona,
Goizetik arratserat chori-boz leguna
Amento eztibatean sarturik nautena.
Horra zer ziren, ene mintzairik maitena.

Ez othe ditutzu zuk
~~Eskuara ez othe tuk~~ laster ta osorik
Nahikunde guziak erraiten-garbirik ?
Ez, ez . zu zaituztenek sobera pobrerik
Beren "eskasa" dute agertzen bakarrik.

Oi eskuara maitea, arrano haundia
Zelaitarren laidock hunat igorria !
Etsaia mendiraino bada ethorria
Ez lotsa hor baituzu alde gazteria

P.S. Aphez gaia etcherat delarik ethorri
Indarren berritzeko baitute igorri,
Othoi eskuaraz mintza gazte gaicho horri
Izan gabe horrentzat arras lotsagarri.

Mend Itik noizpait...

Michel

Armendaritz le 1-1-67

Monsieur

Je vous prie de bien vouloir transmettre ces quelques vers dans le journal (Herria) à l'article d'Armendaritz

airea charmegarria zira eder eta gazte

I

Huna khantu berri bat aire chaharretan
Errepika dezazuen bazter guzietan
Eskualduna khantari aitzen da orotan
Ager dezagun bada gauza hoi obretan

II

Urthe hau ere dugu orai iragana
Hain fite joan dela nork dezake asma
Erremesia dezagun gure jaïnka jauna
Eman baitauku osasun etazoriona

III

Bakotchak berak daki zer zen urthe hori
Ezin jasana zela eni ez iduri

Nahiz egiten dugun artetan zinkhuri
Goth gaiten orai beraz urthe berri ari

IV

Urthe berri hastea nahi dut aiphatu
Ezen urthats egunah noizbeit hartze baitu
Hortakotz nahi dautzuet dener desiratu
Phasa ahal dezazuen urthe on ta saindu.

Michel.

Millox, J. B.

'Senpertarra'

ELIZONDOKO PARTIDAREN GAINEAN

Airea: Cili bat ikusi dut
baratze batean.

lehen kopla.

Huna fertsu berriak, nik orai emanak,
Kantuz erraiteko, plekarien famak,
Elgar ezin bentzutuz izan tuzte lanak,
Azkenean nausitu dire zahanenak.

bigarrena

Mila bederatzi ehun eta hoita bigarrena,
Varthe hau hainitzentzat zer oroitzapena,
Irabazi dutenek plazer, galtzaileek zer pena,
Beti lanjerian baita irriskatzen dena.

hirugarrena.

Carunbatarekin zen, abendoaren bia.
Arduan jokatu da, partida haundia.
Elizondon inzuen diruzko uria.

Bai eta proetchatu lapurtar jendea.

lauganena.

Partida hau izanda izigarrizkoa
Bakan aditzen baita hau bezalakoa
Trinketa hautaturik Elizondokoa
Han eginen zutela guziek jokoa.

bortz garrena

Dongaitz bi anaiak, Léonis eta Areé
Partidaren finitzen lanak izan tuzte
Gaztiek ere galtzerik ez baitzuten uiste
Azkenean zaharrek idabazi dute.

seigarrena

Jean. Baptiste Dongaitzen gizon jamatua
Ez baita maiz ikusten hoi bezalakua
Berrogoi urthe adina eta ehunkilo pisua
Arai ere beharrik egin du jokua.

zazpigarrena.

Besoa hasi zaio piehkabat tikitzen
Gorputza pisututa ilia zuritzen

Bainan halere* ez da batere izitzen
Azkenean badaki kintzearen egiten.

zortzi garrena.

Partidaren egilea batto zen Mendiondo
Holakorik ez omen du ikusi egundaino
Atakatu izan dire azken kintzeraino.
Hondarrean Jean-Baptiste nagusi zen oraino.

bederatzi garrena.

Hamar mila libera alde bakotchetik.
Hoik behar zirela jokatu hasteraz geroztik
Trebesak zenbat ziren jainko onak zakik
Galdu duten gaichuek ere bai har gatik.

hamar garrena.

Ene lagunetan bada urgulutsu hainitz
Nahi nuke nik ere jakintsuna banitz
Sekulan gertatzen banaiz okasionean berritz
Begira egonen naiz bazteretik irriz.

hameka garrena.

Partida horren famak bertsu berrietan
Guziek Kantatzeko Eskual herrietan
Nihor gertatzen bada nere beharretan
Zerbitzaturen ditut denak lorietan.

hamabi garrena

Kantu haukien emailea Battizta haundia
Guziek dakitēna gizon bat noblia
Bertsu berri emailen pare gabia.
Canetik ageri da ofizialia.

J. B. Millox
Senpertarra

Mouge, Clément

CLÉMENT MONGE
PUBLICISTE
BAYONNE
TÉLÉPH. : 2.20

Arotzaren Kantuak

airea : Amikuzeko Gilen ...

Elizatik Anjelus heldu zautanean,
Kartsuki zeinaturik hasten naiz lanean,
omor' onean !...
Goizetik arratserat Koplak ezpainean.

—

Athor' has gerriraino, mailu bat eskuan,
burdina du bihurtzen gorriturik suan,
behar moduan !...
ni bezain dohatsurik ez da bat munduan.

—

4 Igandetan choilki naiz plazarat agertzen,
berriz aste guziko su lanari jartzen,
ongi lehertzen !...
nere zazpi haurñoez holakhet orhoitzen.

—

3 Aroztegia beha ez denez ederra :
ondoan Kantuz ari zaut suaren garra,
dantzan pindarra ;
hala nola zeruan iheskar' izarra ....

—

Gogotik zerbitzatzen dut lur langilea :
saristatzen badaki tresnen egilea .....
adichkidea !
elgar lagunduz igan dezagun bidea.

—

CLÉMENT MONGE
PUBLICISTE
BAYONNE
TÉLÉPH. : 2.20

Nere suan nik dakot moldatzen aintzura,
nihauk arthatzen ere – nola den beharra –
golde nabarra,
ildoan ausik dezan maniraino luna.

Ikusten badautate maiz lisaia beltza,
eskuetan larrua badut ere latza,
ez da zer gaitza!....
nor nahik bezain garbi daukat nik bihotza!

Izerdia jauts bedi turrustan besotik,
neurthitzak dorazi halaber ahotik,
pan-pen ondotik!...
Jozak ene mailua, jozak hor gogotik!!

Alferrak higiaraz ditzan hire lozak,
ingudiaren deia pentzez gain hedazak,
urrun zabalzak!
Eskerrak Jinkoari bihurtzeko jozak!!

Hil eta lur saindurat nute botatuko,
burdin kurutzeño bat dute moldatuko,
han finkatuko....
Lagun hori baizik ez da behar zeruko.

MONTROUSTE 61

Michel artzaina

airea yainkoak dautzuela amare on deneri...

Beti zerbait erranahi bainan ezin mentura...
halta denbara haundia du etaririk mundura
plazer baino pena geiago pratikatuz ardura
toki hotan hola bizi da yendearen itchura
1

eskual herrian sartu bainan amerikan higatzen
bizi trichtea dugula nork ezduke pentsatzen
ezagunik kusi ere gabe hilabeteak pasatzen
nola finituren othe dugun hasiak gira lotsatzen?...
2

eskual herritik partitu hurrunba eta furian
idurri toki hoberik etzaitekela mundian
bainan manerak ikusi eta ageri da ardian
zonbat trichte bizi giren eskualdunak mendian
3

elhurrean pasatzen dugu urtheanen erdia
denbora hartan hiru aldiz ikusiz gure nausia
beraz gure gamendio dago inguruko artaldia
hanbat gaichto serios ezbada adio pagamendia

4

eskual herriko gazteri kontseilu bat emanio
izpirituak hunarat huruz ezduela hanbat balio
partikulazki hemengo berri ongi yakin artio
sar lekuari ez othoi erran sekulakotz adio

5

zeruko yainko jaun ona ikusi gure bizia
desertu hotan erdi galdurik hala nola ihizia
barkatuko othe dautazu orai ene ausartzia?
hil ondoan bedein... plazernukela zeruetan sartzia

Michel artzaina

Mouesca, Jean Pierre

Soldado bat kantuz.

Airea: Borda churi : edozoin. Michel Zuen izena.

1/

Soldado gazte bat da, pour le moment a jour.
Eskual Herriarentzat, il a un grant amour?
Zuen arterat jinen da, segur un beau jour;
Artian igartzen du, Mailaka le bon-jour!...

2/.

Frantzian surtua da, a la paçification.
guerlatik jin tzakon aita, huit jours en permissions
Orai bera algerian, dans certains condition,
agian ez du bilduko, aucune punition!...

3/

Erdia eskuaraz eta, le restant en francais
Emango nuzke chuchen, mes meilleures pensées?..
hilabete bat oino, que j'étais en france;
urte batentzat orai, finient les vacances!...

4/

Zer egingo duzue, au temps qu'on est içi.
ontsa haziak gira, oh pour ça dieu merçi?...
La nouriture qui est, batzuetan hertchi;
Encore si on pouvait, pichka bat liberti!...

5

Goizian ekartzen dugu, le café bien sucré
harekilan jateko, un peu de pain sacrés?
pour le moment tout s'enva, ez dakit noiz arte
moi au moins j'en ai assez, jinkoaren parte!...

6/

Eguerdiban joan behar, pour chercher le rata.
usaina bzara bada, plusieurs fois on part pas!
heureusement qu'on paye pas, hemengo patanta;
Les gens seraient écœurés, hori ikusi ta!...

7.

Goizian lanian hartzen, bien sur toujours autant
Astebetian berritz bate, c'est pour passer le temps
Kanpoan ala barnian, mauvais ou très beau temps,
denen buru heldu da, qu'on est pas très content!...

8/.

Hiztario hoitarik j'en ai mare a la fin.
goizian jeiki behar, toujours de bon matin?.
Etchian behiak zaindu ta, je mangeais a ma fin;
hemen Behiek naute zaintzen, et je crève de fin!...

9/

Bichitaz izan zaiku, le géneral chharlot.
Ele ederak eran, bien sur a la marlau?
Le vent souflet dá un côté, ez baitzuen aro;
Il a fait un beau voyage, bertzerik ez gero!..

10/

Hitz bat eranago nuke, a la petite cherie.
Nor ote zaikon mintzo, s'est son futur mari?.
fidel egoiten bada, la fille de marie;
Biak joanen baigira, tout droit au paradi!..

11/

Kantu hauk eman ditut, dembora paateko.
iguandia zen eta, deusik ez eiteko?
Soldado eskualdunez, bethi oroitzeko;
guk agian ez dugu, nehor ahantziko!..

12./

Ez dut usu hatcheman, holako patara.
sujet haberik ez da, agertzen bichtarat?
bego zerbitzuaren, trankil fintzerat;.
sor herrirat jin dadien, Pampilli Espeletarra!..

Jean Pierre Mouesca.

Moustirats, Gratien

'M.G.' 'Mohaindarra'

CONSTANCE-étik Kantu

Airea Dama gazté charmanti bat.

1

Agur eta ohorè neurè herriari,
Aita, ama, haur idè eta gazteriari,
Kaseta izaiten baitut eta eskerak nori,
Bichtan den gauza hau da jaun Errètorari?
Tralalà ..... jaun Errètorari.

2

Omorè onarekin hasten naiz kantarri,
Lèhènik édan eta zoinbeit baso gorri,
Hemengo berri batzu nahizik, igorri
Ezin ahanzia dudan MÉHAINE herriari?

3

Persuin moldatzeko, ez dit hanbat talendu,
Bizkitartian nahi dut zerbeitchka moldatu,
Gaurko gau hutan gira guziak choratu.
Eskualduzak baigira elgarretaratu?

4

Gau egunez gogoa orhoit neure herriz
Benak ahantzirik hasia naiz irriz
Itzuliko naizela égun batez bèrriz
Komunia dezadan gaztékin Egubèrriz

5

Lagun batzuen izenak hemen ditute ezartzen
Uvrugendar bat lehenik daizuete aiphatzen
Kuraiekin Franzia duelakotz kitatzen
Eta Helettarre batekin Algerian sartzen?

6

Huna bertzi bat eri hau CHiberotarra,
Lagunekin juan nahia gelditzen bakharra,
Ofizioa aldi du ezen da coiffurra,
Irri egine arraztiko oy zer amaturra?

7

Iragan den astia bai asti dorphia,
Gure eskualdun soldadoen horela uztia,
Guziek badakizue oraiko legia,
Algerian sarthu behar utzirik Franzia.

8

Nola amek beititutzi beren haurrak maite.
Bera zen gurezat bainan denbora juan fite.
Gure desira huntan akhaba ditake,
Zeruko jaun maitia othoi jarraik zaite?

9

SOLDAT MOUSTIRATS. GRATIEN
2ième compagni 4ième section
Secteur postal 69 420

10

Urriko ilabethian behar diau orhoitu,
Ahalik usiena arrosorioa kuraitu,
Eta huntan nahi dut solasa trinkatu
Guardia ez hartu nahiz eriz naiz gelditu

11

Trichte eta alegera mundu huntan goatzi
Eskual herriz phensuak behar tut utzi
Osagarri onian naiz eskeraak jinkoari
Soldado guzien phartez goraintzi deneri?

Jan buruzagia, huna nun bertarazi
nauten persu bazuen moldazerat Algeriulat
juan ancienne Eskualdun maithagarri
batzuek, doiy doia ilabethe bat
hemen naizela, funsian, ageri duten
bezala - apprendiz persuak dira
ez soberarik jakin izkiriatzen - ere
bainan fagoriz balin baduzu
emazkitzu HERRIA deithu kasetan
eta gero chago ere igorriren dauzkizute
bakhan entzuten diren kantu
chahare choragariak. Beraz esker
mila ainzinetik aita Laffite maitia

M. G. MÉHAINDARRA

Muxika, Luis Mari

Donostian, otsailak 19

Aita Pierre LAFITTE
Ustaritz

Jaun agurgarria:

Barkatu atzerapen hau. Arrazoin nagusia Barcelonatik ibili haizelako da. Esan bezala gipuzkera nagusian idazten dizut, bertan bi bat subeuskalki baidaude.

Besterik gabe agur bero bat,

IÑOIZ EZ ADOREGABETU

Korri, ezin bazera egan ibili,
ibili, korri ezin badezu,
arrastakatu ibili ezin bazera.

Alabaña beiñere ez gelditu ,
altxa zaitez, iñoiz jetxi gabe.
Irripar egin, parra ezin badezu,
alai izan, irripar egin ezin badezu,
pozik egon, ezin alaitu bazera.

Iñoiz ez adoregabetu,
beti joan aurrera...

Luis Mari MUGICA

N. D.

airea partizeko tenoria) Oi zer pena

I

Ainhöa nuke pochi bat ohoratu nahia,
Cantore berri ba aspaldi eman nahia.
Azkenian aribatu baita tenoria,
zaun andre gazte batzuen partizea.

II

Partizeko tenoria huna non den jena,
Varikaltzeko baita kasu hortan dena.
Izar baten uztiak emaiten dazu pena,
zeren hura baizinuen munduan maitena.

III

Izar charmegaria oi penetan zira,
Penak doloriak oro zure gainian dira.
zure hitzetan fidel egoiten bazira,
zainkoaren graziak zu ganako dira

IV

Maihazaren lehenei huna non den jena,
Or gelditu baizira dolore eta changrina

Maite chahar bat bai bitzinuen egina,
Hura partitu behar mendi gaina barna.

V

Etzira ez naski kechu maitia partiturik,
Arzaina auzotegitik hurun igoririk.
Bertze harek maitazen bazitu segurik,
Laguna hor itzanen duzu gazterik.

VI

Gaizik abiazea biziki on omen da,
Bainan gaztegi ibiltzea kalteago dela,
Leku hautan bihirik izan babhin bada,
zu aski gazterik ohartua zira.

VII

Beharik zer egin oino baizinakin,
Gaztea harapa chahara partitu ainzin
Arte hortan gabe suherta etzin
zainkoak trumpa dezala bat edo.

(bertziaikin

VIII

Iluna zeratzian karikan zinelarik.
Etorzen zinen fite bide ilunetik,
Maite gaztea heldu baizen ondotik,
zer gerta ere ez huzteko bakarik.

IX

Untan finitzen dut bez ene bertsua
Pentsazen baitut itzaitia fite komitatua
Eztaietan ongi zerbitzatua.
Gazte lagun gisa aldean faratua.

N. D.

Monsieur voulez-vous bien ecrire cette chansons je vous pris sur le journal. «Herria». Mes meilleurs remercimant do d'avance.

N. D.

Neuve maite polite

NEURE MAITE POLLITA

I

Nere maite pollita ez nauzu maitatzen
Bihotz erdiragaria zer duzu pentsatzen
Hanbat denbora huntan nauzu abusatzen
Zertako ari zare-ni hola flatatzen(berriz)

2

Primaderak oro oi liliz eginak
Goizeko choriaren oi kantu arinak
Ez duzue eztitzen nere bihotz-mina
Zeren sobera baitut-amodio fina(berriz)

3

Maiz erraiten dautazu zuk maite nauzula
Eta jendek erraiten bertzerikan dela
Muthil gazte propitan mudakor zarela
Gizonen abusatzen zuk-laket duzula(berriz)

4

Sinhesten badituzu jendien erranak
Eta guti prezatzen nere solas onak
Deus ez dira izanen zure ontasunak
Segur sinhetsiren nau-ni maite nauenak(berriz)

5

Lilitan pollitena elhorri churia
Lilia joan ondoan zein bihi gorria
Bihi barnean dauka oi hezur gogorra
Barnez gor,kanpoz eder-da bihotz elkhorra(berriz)

6

Zelayak buluz trichte dirade neguan
Hegaztinek ez dute kantatzen orduan
Ez da amodiorik zure bihotzean
Kita nezazu kita-nahi duzunean(berriz)

7

Etzitezela urrunt hola samurturik
Gau egunak naukazu nigarrez hurturik
Nik ez dakit zer erran zeren maitaturik
Ez baitezaket izan-nik zutaz bertzerik(berriz)

8

Nahi eta beldur naiz,beldur eta nahi
Gizon gaztea baita oi enganagarri
Ez naite behinere jar deskantsuari
Zure beldur zu maite-ni naiz urrikari(berriz)

9

Holako populu bat bilduz Elizarat,
Ikhusiz han khartsuki,egiten orok bat,
Bihotzera heldu da halako gocho bat;
Egiaz iduri du Zeruko chokho bat.

IO

Gure besta ederra baitzen akhabatu,
Berriz mendirat buruz nintzan abiatu;
Jaun batek hor,karrikan,eskutik nu hartu,
Karitatez arabez, ber'etchean sarthu.

II

Mahain baten aldean ninduen ezarri,
Phentsa-hal sokorriak zaizkitan ekharri,
Azkenekotz ez nintzan gose ez egarri,
Jaun on hura izan zen ene choragarri.

I2

Jaun haren prësentziak ninduen choratu...
Dembora bazohala hor nintzen ohartu:
Ardi-etcholak zaiztan betan gogoratu,
Eta desertur-gisa nintzan eskapatu!

I3

Ene etcholan nago orai gogoetan,
Hura,nola pagatu behar othe dutan...
Nahi nuke igorri Eskualdun-kasetan,
Eskëmila bederen errezebidezan!!

Nevadako artzaina

Aurea: Primadera goiz batez

Hemeretzi ehun'ta berrogoita zortzi
Aire zohar batian zombat batsu berri
Ahantzi gabe ditut paperian ezarri
Laburzki esplikatuz artzainaren berri

Primadera hastetik uda azkenera
Mendietan bakarrik tuste bizi gira
Neguan aldiz juhan nunbait desertura
Zoin debruk ekarri nau holako lekura

Can handiena hemen primaderatzian
Sierrako aldera juaiten girenian
Ardi azkarra kurri iduri airian
Ahula herrestaka belhaunen gainian

Bazka guti denean erne dira goizik
Makadatikan juaiten ilunaren gatik
Juarea urrun eta mariaka hementik
Nahiz aise dabilzan gizenaren gatik.

Zortzitik tualeta ordian ere labur
Arnorik ez da eta ura ere chuhur
Artetan ezin bertzez egin behar barur
Gizonen fantesiak sartzen dira segur

Beku hok urrunera badute omena
Ez balitz ba gostarik egin behar lana
Plazer bakar batentzat bada hamar pena
Ainitzez hobeki da Sort Herrian dagona.

Kalla ogi petikan gordeka kantari
Ez hala izaiteko izena ezari
Ira denboran salatuz kurios denari
Hor gaindi deitzen naute Juanes Lekumberry
Nevadako Artzaina

Nevadako artzaina

Abiea: Ameriketako esne Saltzaileak

I

Hemeretzi ehun'ta berrogoi zazpian
Sor lekua utzi dut adin ederrian
Orai hemen naiz bizi uraz hunaindian
Gogoa ilhun eta pena bihotzian
Desertuetan artzain bakhartasunian

II

Bakartasuna eta sor lekutik urrun
Pena haundiagorik ba othe da nihun
Gizon bat 'kuzi gabe zazpi zortzi egun
Elhurra jin denian eteherik ez nihun
Gau egun oroz nago zenbeit ardi lagun

III

Hamar m-anamendutan hau hirugarrena
Jaunaren zerbitzuko igande eguna
Artzain batek mendian (ezin egin) dezakena
Jaborrek ematen deraut bihotzian pena
Bertze egunen pare igande eguna.

IV

Izarrak hurran eta ez urrun zerutik
Halere iguzkiak ez hambat indarrik
Nehun ez dut frogatu holako haizerik
Gure etcheri ez du itzultzen teilarik
Lehenago juanen du atherbia errotik

V

Plazer zombeitño ere pena horiekin
Oro erranen ditut oi demborarekin
Bethi bakean bizi kozinertsarekin
Urtheak iraganen chapel berarekin
Gastu gehiago ~~dugu~~ dut zapatainarekin

VI

Lekhu hok ez dirade nola nahikoak
Eskualdunentzat dira espres beiratuak
Aise ordaintzen tugu hemengo gastuak
Zinema 'ta teatre bethir berdintsuak
Eletrika fornitzen zeruko yainkoak.

VII

Kantuz ez dugu behar nehor mendekatu
Lan eginaz ez zauku ez behar dolutu
Ni segurik ez naute nehok enganatu
Neure ideyak ditut holachet komplitu
Orai hartu seilari beharko segitu

VIII

Lagunak banituen jiteko bidean
Orai berduratuak eremu haundian
Heien berririk ez dut juanden aspaldian
~~Kantuz ukhanen ditut hek ere agian~~
Berantetsia nago hemen errabian
Kantuz ukhanen ditut hek ere agian

IX

Kantu hok eman ditut hein bateko presan
Elh 'alfer 'ta egiak oro 'zarriz baltsan
Bainan ez othe dira Kompreitzeko gisan
Nik ez nitzazken molda nihun bertze gisan
Den bezala beharko ditutzue jasan.

X

Gorraintzi bat urrundik Eskualdunendako
Horko orhoitzapenak ez tut ahantziko
Zambait urtheño ditut hemen paratuko
Hitzemaiten dautzuet huntaz segur nago
Ez nizala segurik hemen zahartuko

XI

Horra ene berriak hameka hersutan
Orok kanta ditzaten Eskual-Herrietan
Sinheste ez duenak hartzen horietan
Bide bat bada libro hor frogatzekotan
Itzuli bat eginez ene ando huntan.

NEVADAKO ARTZAINA

FSC
TT-COC-2573